

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittor Aperribai Abasolo

*Bergara,
Gipuzkoa
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Basalgo auzoko Lonbide baserrian jaio zen. Aita Eskoriatzako Mazmela auzokoa zen eta ama, berriz, Otxandiokoa. Bitorre Basalgoko auzo-eskolan ibili zen 10 urtera arte. Gerra denboran kalean egon ziren zazpi hilabetez. Gerra ondorenean, baserria utzi eta Zubietako kaleko kale-baserri batera joan ziren, behi bat eta astoarekin. Ortu sail handiak landu zituzten bertan. Soraluzeko Gallastegi lantegian ekin zion lanean, labanak egiten lehenengo eta bizikletak geroago. Loroño eta Langarika txirrindulariak Gallastegi markarekin lehiatutakoak izan ziren. Bergarako "Textil Mugarza" arropa tindatze lantegian eman zituen 24 lan-urte Bitorrek. Tindatze prozesua zehazki azaltzen du. Ondoren, Asa lantegian hasi eta jubilatuko arte jardun zuen bertan, pieza txikiei bainu metalikoak ematen. Oñatikoa Patrua kaleko Isabel Maiztegiarekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten. Bitorren seme Jose Iñazio ere egon zen elkarriketan.

Zintak

BER-298

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarriketatzailerak(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-04
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aita-amak lehengusuak ziren

- **Erref:** BER-298/002
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Eskoriatzakoa zuen, Mazmelakoa, eta ama Otxandion bataiatua. Lehengusuak ziren, eta Ubideako apaizak ez zituen ezkondu nahi izan. Amandreak gotzainaren baimena lortu behar izan zuen, ezkondu ahal izateko (amama inude egon zen Gasteizen, eta hango familiaren bitartekaritza baliatu zuen, Guineatarrena).

2. Lonbide baserrian errentan zeuden

- **Erref:** BER-298/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren familia Mazmelatik Bergarara joan zen bizitzera, Lonbidera. Baserrirako lehengusua ekarri zuten gero. Zortzi senide ziren aita-eta.

3. Auzoeskolan ibili zen

- **Erref:** BER-298/006
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:06:44. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Santiagon ibili zen eskolan. Maisua bertakoa zen, eta sakristau lanak ere egiten zituen: Dionisio Aldazabal. Goimenditik eta San Juandik ere joaten ziren umeak. Edade denetakoak, neska eta mutil, denak batera egoten ziren. Euskaraz hitz egiten zuten eskolan (1928an), baina erdaraz ere ikasten zuten. Jaunartze handia egin arte ibili zen eskolan.

4. Mutikoa zela, aitona-amona aldaketa baserrian

- **Erref:** BER-298/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bera mutikoa zela aldaketa egon zen Lonbiden: osaba bat Labe Garaietan hasi

zen lanean, eta Bergarara kalera joan zen bizitzera; aitaren gurasoak eta arreba solterak berarekin joan ziren bizitzera. Orduan, amaren aldeko gurasoak joan ziren Lonbidera bizitzera, Ubidetik. Izan ere, laguntza beharra zuten: aita erreumak jota zegoen, eta ama hiru ume txikirekin.

5. Gerra hasi zenean, kalera joan ziren ihesi

- **Erref:** BER-298/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:51. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bost behi zituzten, idiak, ardiak... Mendian zeuden ardiak, eta gerra sasoian denak desagertu ziren. Oiloak ere bai. Etxetik joan beharra izan zuten, erdian geratzen zelako. Milizianoak joan zitzaizkien etxera. Kalera joan ziren, animalia gehienak bertan utzita.

6. Aitajauna preso hartu, eta kartzelako asaltoan hila

- **Erref:** BER-298/010
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aitajauna bakarrik geratu zen baserrian, gerra hasi zenean, eta milizianoek preso hartu zuten. Bilbora eraman zuten, eta han kartzela asaltatu zutenean, zauritu egin zuten, eta egun gutxira hil egin zen. "Caidos por la Patria"koen zerrendan jarri zuten.

7. Bonbardaketak Bergaran

- **Erref:** BER-298/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:01. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bergaran, bonbardaketak. Algodoneran langile batzuk hil ziren. Kamineroak eta aguazilak guardiak egiten egoten ziren, plazan, eta Leteren aita horrela hil zen, kainoikadak jota. Metraila markak duela gutxi arte egon dira Correosen.</p>

8. Batera eta bestera, baserriz baserri

- **Erref:** BER-298/012

- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Osabaren etxera joan ziren lehenengo, baina ganaduarentzat tokirik ez zuten, eta etxea ere leporaino zegoen. Antzuolara joan ziren gero, Etxenagusia hilabete eta erdirako. Soldadukora joan ziren ondoren, gari lanak egitera. Karlistak bi aldiz joan ziren aitaren bila, preso hartzeko, baina ez zuten aurkitu. Soldadukoa preso eraman zuten.

9. Baserriera buelta, zazpi hilabeteren ondoren

- **Erref:** BER-298/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:25:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Zazpi hilabete egin zituzten etxetik kanpo. Irailetik apirilera. Ganauarentzat jan ugari zegoen han: belarra, arbia, artoa... Lan ugari izan zuten dena ondo jartzen: patata erein, artoa batu... Etxe barruan balio zuten gauzak falta ziren, aitajaunak Kubako gerran erabilitako sablea eta.

10. Baserria uztea erabaki zuten

- **Erref:** BER-298/015
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garirik ez zuten erein baserrira bueltatu ziren urte hartan, eta errenta ordaindu behar. Azaroan errenta osoa eskatu zieten. Hura ordaindu, eta baserria uztea erabaki zuten. Kalera joan ziren bizitzera. Baserria erosten saiatu ziren, baina ezetz esan zieten.

11. Klean etxea erosi zuten, Zubietan

- **Erref:** BER-298/016
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:31:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Behi batekin eta astoarekin joan ziren kalera bizitzera. Etxejabea bizi zen

lehen pisuan. Gero etxea erosi egin zuten; 35.000 pezeta etxe osoa, baratzearekin. Kamilako urik ez zegoen lehen solairuan. Beheko sua non zegoen. Kalebaserri gehiago ere baziren Zubieta kalean.

12. Algodoneran saiatsu zen, baina gazteegia zen

- **Erref:** BER-298/020
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

1938an joan zen kalera bizitzera. Berak urtebete gehiago egin zuen baserrian, maizter berriek artean ez zutelako hara joateko asmorik. Ganaduzain egon zen, eta esnea kalera eramaten zuen, amak eta izebak saltzeko. Algodoneran hasi zen lanean, baina 13 urte zituen, ez zioten jarraitzen utzi; bere ordeza aita hasi zen han lanean. Gero Plazentzian ibili zen hamar urtean, Gallasteginean, laban fabrikari.

13. Soraluzeko Gallastegi lantegian egindako lanak

- **Erref:** BER-298/021
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Gallastegi lantegian labanak egiten zituzten. Gero bizikletak egin zituzten hiru bat urtean. Limarekin ibiltzen zen bera. Gallastegi bizikleta markarekin korritu zuten txirrindulariak ere egon ziren: Loroño, Langarika eta Bidaurreta. Oñatin "kilometro lanzado" munduko txapelketa egoten zen.

14. Mugarza ehun lantegira lanera

- **Erref:** BER-298/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihaigintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Gallastegik kiebra jo aurretik, Osumara joan zen lanera, Soraluzen bertan. Urtebete eta erdi eginda, Madinanera joaten saiatsu zen, Bergarara (enpresa beraren parte ziren). Mugarza ehun lantegian hasi zen orduan, Bergaran. 24

urte egin zituen han lanean. Horrek ere kiebra egin zuen gero. Tela tindatzen ibili zen Mugarzanean; astorgan erosten zuten tela.

15. Tindatze lanak I: garbitu, tindatu eta lehortu

- **Erref:** BER-298/027
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Mugarza ehun lantegian tindatzailearen laguntzaile moduan egon zen. 100 metroko piezak erosten zituzten; tindatzeko, ehun kiloko rolloak prestatzen zituzten. Aska bat zuten, eta tela makinatik pasatzen zen handik. Tinta irakiten egoten zen, azula zenean. Kolore bakoitzak bere tenperatura zuen. Garbitu egiten zuten tela, eta sekaderoan zintzilik jarri.

16. Tindatze lanak II: "aprestoa"

- **Erref:** BER-298/028
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:51:26. **Bukatu:** 00:56:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Behin tela lehortuta, "aprestoa" jartzen zioten: kola ematen zioten. Nola egiten zuten azaltzen du, kola askan jarri eta makinarekin tela handik pasarazita. Toki beroan lehortu behar izaten zen tela gero. Baporetan pasatu, enroilatu eta listo zegoen tela. Kanpora saltzen zuten batez ere.

17. Mugarza itxi ondoren, Asa torloju tailerrera

- **Erref:** BER-298/029
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:56:57. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Mugarza itxi zutenean, langabezian egon zen. Mendian ibili zen, egur lanetan, eta gero Asa tailerrera, katalanena. Torlojuei bainua ematen aritu zen.

18. Osintxura erromeriara

- **Erref:** BER-298/031

- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:59:36. **Bukatu:** 01:00:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Osintxura joaten ziren erromeriara, hilean bitan edo. Mekolaldeko erromeria. Oñatiarra zuen emaztea, Patrua kalekoa.

19. Oñatiko txokolate lantegiak

- **Erref:** BER-298/033
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:01:02. **Bukatu:** 01:02:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Oñatin txokolateria eta aterkin lantegi asko zegoen sasoi batean. Egaña eta Orbea, Kale Berrian.

20. Oñatira trenez eta bizikletan, jaietara

- **Erref:** BER-298/035
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:02:55. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Oñatira ere joaten ziren erromeriara, jaietan. Egunez joaten ziren, eta bederatzietan zen bueltako azken trena. Olabarrietako jaietara joan zen behin bizikletan, lanetik irtenda. Apaizak esan zuena kontatzen du.

21. Idi demak Bergaran

- **Erref:** BER-298/037
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:06:15. **Bukatu:** 01:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi probatan ez dira sekula ibili. Auzoko batzuk bai. Frontoi aurrean egiten ziren idi probak Bergaran. Astotegiaren ondoan, probalekua. Urrutia ibiltzen zen idiekin.

22. Auzoko karreteroak, haritz okerrak garraiatzen txalupak egiteko

- **Erref:** BER-298/038
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:08:53. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Auzoko karreteroek, hiru baserriakoak, haritz okerrak ekartzen zituzten idiekin, gero txalupak egiteko.

23. Bergararrak Bilbon, bi anekdota

- **Erref:** BER-298/042
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 01:12:25. **Bukatu:** 01:17:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Txanpon anaiak eta Arandonekoak Cantabriara joaten ziren. Bilbon Txanpon-eta ezkutatu egin ziren, eta besteak bila, aguazilari galdezka. Olako amerikano oinez joan zen Bilbora, eta Gran Vian ogitartekoa jaten zegoela, aguazila joan zitzaion, ijito planta hartuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com